

Alain Perezek tesiaren irakurri du

2016/10/21

Epaimahaia:

Lehendakaria: Edward Curry dokt. ([National University of Ireland](#))

Bokala: Izaskun Fernandez Gonzalez dokt. ([IK4-TEKNIKER](#))

Bokala: Arkaitz Zubiaga Mendiak dokt. ([University of Warwick](#))

Bokala: David Buján Carballal dokt. ([Universidad de Deusto](#))

Idazkaria: Leire Etxeberria Elorza dokt ([Mondragon Unibertsitatea](#))



Berrikuntza prozesu oso garrantzitsu bat da Enpresa Txiki eta Ertainen lehiakor eta bizirik irauteko ingurumen lehiakor batean. Berrikuntza prozesuek ideiak eta ideien kudeaketa dituzte oinarri gisa. Teknologiek eta lehiakideek nola eboluzio-

natzen duten jakitzea ere garrantzitsua da enpresen berrikuntzarako, eta baita ere informazio hori kudeatzea. Beraz, Informazio eta Komunikazio sistemen aplikazioan oinarritzen da tesi hau, zehazkiago Web Semantika eta Teknologia Semantikotik eta hauen aplikazioa Ideia Kudeaketa eta Zaintza Teknologikoko sitemetan.

Berrikuntza eta Zaintza Teknologikoko plataformen kudeatzaileek arazo larri-

ak izaten dituzte jasotako datuekin eta haien kudeaketarekin. Kudeatzaile horiek plataforma ezberdinetan banatutako informazio kantitate handi batekin topo egiten dute eta plataforma horiek ez dira beti elkar eraginkorrak. Beraz, beharrezkoa da plataforma ezberdinetako datuak elkarren artean partekatzea gero datu horiek "ezagutza" bihurtzeko. Gainera, kudeatzaileek egiten dituzten zeregin kopuru handi bat zeregin ez emankorrak dira, denbora eta esfortzu handia suposatzen dute baliozko ezer gehitu gabe. Eta ez hori bakarrik, berrikuntza prozesuko kudeatzaileek zail izaten dute ideia lehiaketan arrakastaren arrazoiak identifikatzen.

Gure proposamena Informazio eta Komunikazio Teknologia ezberdinak frogatzea da enpresen berrikuntzako eta zaintza teknologikoko prozesuetan laguntzeko. Honela, hainbat teknologia semantiko eta web teknologia aztertu dira, modelo kontzeptual batzuk eraikitzen eta probatzen benetako erabilpen kasutan lortutako emaitzak konprobatzeko.

Tesi honen lorpena plataformen arteko elkar eraginkortasuna ahalbidetzen duen eta prozesuen kudeatzaileen lana errazten duen modelo baten sorpena izan da. Ho-

rrela eta sortutako modeloa konplimentatzeko, bi ontologia sortu dira: (1) Gi2Mo-Wave eta (2) Mentions Ontology. Alde batetik, Gi2Mo-Wave ontologia ideien eta ideia lehiaketan testuinguruaren errepresentazio semantikoa oinarritu da. Horrela testuinguruaren analisisa errazten da, ideia lehiaketa arrakastatsua errepikatzea ere errazagoa eginez. Bestalde, Mentions-Ontology ontologia eduki ezberdinen (ideiak edo berriak adibidez) testuetan aipatutako elementuen errepresentazio semantikoa oinarritu da. Horrela, Mentions Ontology ontologiak edukia elkar konektatzeko era bat sortzen du, plataforma ezberdinen edukiaren arteko elkar eraginkortasuna ahalbidetzen.

Modelo edo arkitektura hau frogatzeko, Ideia Kudeaketa Sistema eta Zaintza teknologikoko web plataforma berri batzuk garatu dira ere.

Plataforma hauek tresna eta ontologia semantikoak dituzte txertatuta, beraien arteko elkar eraginkortasuna ahalbidetzeko.

Gainera, teknologia semantikoen aplikazioarekin giza lan kargaren murrizketa nola gauzatu ere frogatzen dugu, Zaintza Teknologikoko edukiaren klasifikazio automatikoan ekarpenak eginez.

Bukatzeko, konklusioak bildu dira erabili diren teknologien frogetatik jasotako emaitzetan oinarrituta eta emaitza onenak lortu dituztenak identifikatu dira.